



OHARRA, ERAIKUNTZA- ETA ERAISPEN-HONDAKINAK BALIOZKOTZETIK DATOZEN ERAIKUNTZA-PRODUKTUEN CE MARKARI BURUZKOA

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak konpromiso irmoa dauka Euskal Autonomia Erkidegoan eraikuntza- eta eraispén-hondakinak behar bezala kudeatu eta birziklatzearekin, ekonomia zirkularra sustatzeari begira. Horretarako, kalitatezko produktu baliozkotua lortu nahi da (eraikuntza- eta eraispén-hondakinen agregakin birziklatua), merkaturatu dadin.

Hala, **Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren** 69. artikulua zehazten duenez, besteren artean, printzipio hauetan oinarrituko da Euskal Autonomia Erkidego hondakin-arloko politika: a) jatorrian prebenitzea eta murriztea, ekoizpena eta kaltegarritasuna murrizteko, eta b) berrerabilpena, birziklapena eta baliozkotzeko nahiz zikloak ixteko bestelako edozein modu bultzatzea.

Ekainaren 26ko 112/2012 Errege Dekretuak (eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa erregulatzen dituenak) eta Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2015eko urtarrilaren 12ko Aginduak (eraikuntza- eta eraispén-hondakinak baliozkotzetik datozen agregakin birziklatuak erabiltzeko betekizunak ezartzen dituenak) eraikuntza- eta eraispén-hondakinak ekoizteko eta kudeatzeko araubide juridikoa osatzen eta zehazten dute. Halaber, eraikuntza- eta eraispén-hondakinak baliozkotzetik datozen agregakin birziklatuak Euskal Autonomia Erkidegoan erabiltzeko betekizunak ezartzen dituzte.

Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak, bigarren xedapen gehigarrian (agregakin birziklatuen eta eraikuntza-materialen erabilerari buruzkoan) zehazten duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak ezarriko ditu eraikuntza- eta eraispén-hondakinak baliozkotzetik datozen agregakin birziklatuak eta eraikuntza-materialak erabiltzeko betekizunak.

2015eko urtarrilaren 12ko Aginduak 5. artikuluan xedatzen duenaren arabera, erabilera baimenduetarako bideratu ahalko dira agregakin birziklatuak, «(...) Agindu honen I. eta II. eranskinetan aipatzen diren baldintza eta kontrol teknikoen, ingurumenekoen eta produktiboen pean». Hala, honako hau zehazten du II. eranskinak:



«Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko martxoaren 9ko 305/2011 (EB) Erregelamenduaren esparruan ezarrita dauden betekizunekin bat eginez (305/2011 (EB) Erregelamenduaren bidez, **eraikuntza-produktuak merkaturatzeko baldintza bateratuak ezartzen dira eta Kontseiluaren 89/106/EEE Zuzentaraua baliogabetzen**), Agindu honetan tipifikatzen diren erabileretarako CE marka dutela egiaztatzen duen dokumentazioarekin hornitu behar dira eraikuntza- eta eraispén-hondakinetatik birziklatutako agregakinak».

Martxoaren 9ko 305/2011 (EB) Erregelamenduak honako hauek sartzen ditu agente ekonomikoen betebeharren artean:

1. Fabrikatzaileen betebeharra da eraikuntza-produktuaren prestazioen adierazpena egitea eta ematea, 4., 5., 6. eta 7. artikuluetan ezarritakoan oinarrituta.
2. Fabrikatzaileen betebeharra da CE marka jartzea, 8. eta 9. artikuluekin bat eginez.
3. Hala dagokionean, inportatzaileek zainduko dute produktuek nahitaezko CE marka edukitzea.
4. Banatzaileek, eraikuntza-produktua saldu aurretik, produktuak - beharrezkoa bada- CE marka daramala ziurtatuko dute.

Adierazitako esparru arautzailearen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, 2015eko urtarrilaren 12ko Aginduan tipifikatzen diren erabileretarako CE marka dutela egiaztatzen duen dokumentazioarekin hornitu behar dira eraikuntza- eta eraispén-hondakinetatik birziklatutako agregakinak.



Besteren artean, merkaturatu eta erabili ahal izateko nahitaezko betekizuna da hori, eta eraikuntza- eta eraispen-hondakinak baliozkotzetik datozen materialak baliozkotzeko eta erabiltzeko orduan sartuta dauden aktore guztiek (eragile/agente ekonomiko guztiek) hartu behar dute kontuan.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko apirilaren 4a.

Ingurumeneko sailburuordea
Viceconsejera de Medio Ambiente

MARÍA ELENA MORENO ZALDIBAR